

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea

Udal honek, 2018ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko taxututako espedienteari. Espediente jendaurrean egon den bitartean ez denez erreklamaziorik aurkeztu, espediente hori behin betiko onartu da. Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

Zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen ordenantza

I- Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzeko zerbitzuarengatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II- Zerga gaia

3. artikulua

Tasaren zerga gaia zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua eskaintzea da. Zabor bilketa honako leku hauetan egingo da: jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren etxebizitzetan, ostatuetan eta lokaletan edo establezimenduetan.

III- Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasibo zergadunak dira Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horien jabe, gozamedun edo prekarioko erabiltzaile.

2. Dena dela, zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboa izango da etxebizitza edo lokalaren jabea, eta horrek, hala badagokio, ordaindutako higiezinaren kuotak haien erabiltzaileei ordainarazi ahal izango dizkie, horiek izanik zerbitzuaren onuradunak.

IV- Zerga oinarria

5. artikulua

Zerga oinarria osatzen dute zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, tarifyan ezarritako baldintzen arabera.

V- Kuota

6. artikulua

Kuota zehazteko, aurreko artikulua arabera ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

VI- Sortzapena

7. artikulua

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

VII- Arau haustek eta zehapenak

8. artikulua

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigoren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

VIII- Azken xedapena

Zerga ordenantza hau, eta berorren eranskinak, 2018ko urtarrilaren 25ean onartu zen, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. eranskina

Tarifa

1. epigrafea: etxebizitzak:

	2018	2019	2020
Luiaondon eta Arespalditzan biltzeagatik	60,63 euro urtean	75,84 euro urtean	84,27 euro urtean
Udalerriko gainerako herrietan biltzeagatik	48,51 euro urtean	60,67 euro urtean	67,42 euro urtean

2. epigrafea: dendak eta bestelako erabilerak dituzten lokalak:

	2018	2019	2020
Biltzeagatik	297,13 euro urtean	371,66 euro urtean	412,95 euro urtean

3. epigrafea: enpresak:

	2018	2019	2020
Okupatutako azalera gehienez ere 1.000 m ² bada:	354,71 euro urtean	443,68 euro urtean	492,98 euro urtean
Okupatutako azalera 1.001 m ² baino gehiago bada:	565,61 euro urtean	707,49 euro urtean	786,10 euro urtean

Dirubilketa aldia:

– Urteko azken hiruhilekoa.

II. eranskina

2021etik aurrera (barne), eta urtero, eguneratu egingo dira I. eranskinean jasotako tarifak, KPIa handitzen den heinean. Hala ere, etorkizunean tarifak aldatu egin daitezke zerbitzuaren beharrak direla eta.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Arespalditza, 2018ko apirilaren 23a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA